

info  LANA

Ez noa berriro lanera

Etiket ere egin daiteke orain behar; alde onak eta txarrak ditu

Jabi Zabala • Bilbo

Badakigu, gizarte digitalaren iragarpenak egin ohi dituen Javier Etxeberria filosofo jakintsuak hala esan du eta, etxea produkzio unitate bihurtzen ari dela atzera, lehen-go baserria zen bezalaxe. Gizarte postindustrialean, gero eta ugariagoak diren —garen— telelangileak etxean bertan aginduak jaso, informazioa bildu, lanak egin eta enpresara bidaltzen dituzte telematikaren bidez. Informazioaren gizarte-antolatzeko eta egiteko egitura berriak agertzen ari dira, parke teknologikoak eta lan egiteko aldi-errietako auzoak adibidez. Telelana gizarte horren ezaugarri garbia da.

Garraio barik

Lanera joan behar ez izateak abantaila nabarmenak ditu, garraioa erabili beharrik ez dagoelako. Itzartu eta berehala egon gaitzake lanean; beraz, denbora ere aurrezten dugu horrela. Egun, Internetekin erlazioztako zereginetarako erabiltzen da gehienbat, edo diseinu grafiko bezalako lanbideetan. Egoera batzuk ere aproposak dira telelana egiteko, amatasuna, gaixotasun kronikoak edo ezintasun fisikoak izanez gero, etxeari lotuagoak gaude eta.

Normalean telelangileak autonomoak izan ohi dira, *freelance*, hizkuntza modernizatua erabili nahi bada. Berauek kontratatzen dituztenek nahiago dute lan baten truke kopuru bat adostea, orduen arabera ordaindun gero langilea kontrolatzeko modurik ez legokeelako. Enpresek abantailak baino ez dituzte ikusten normalean telelanean. Lanpostuak aurrezten dituzte, ordenagailua eta azpiegitura gastuak. Askotan, gizarte segurantzaren ere aurrezten dute eta baita kontratuak egitea, dena baitoa langile autonomoaren

kontu. Horregatik, askotan prekaritatea dakar lan mota berri honek.

Etxean PC bat instalatuta eta sarerako konexioa eginda nahikoa izaten da. Beste batzuek faxa eta telefonoa jartzen dute, eta gela bat atondu, bulego bezala. Itzultzaileek, arkitektoek, idazkariak, kontu hartzaileak, kontsultoreak, maketatzaileak,

Telelanaren alderdi txarra da lanaren eta aisiaren eremuak ez bereiztea

razten du. Hori saihesteko, telelangileak eta bizitzeko zerbitzu guztiak batzen dituzten EEBBetak auzune berri zenbaitetan, elkarguneak dituzte, biztanle telelangileak bilerak egin eta bakartze egoera apur dezaten.

Ezin libratu

Ordutegi malgua izatea abantaila eta desabantaila izan daiteke. Ugazabaren presio zuzena jasaten ez duen langileak diziplinatua izan behar du, bestela ez du emaitza handirik izango. Gainera, ordutegiak ondo antolatzen ez badira, lanak egun osoa hartzeko arriskua dago, eta lanetik ezin libratuan ibiltzekoa.

Askotan telelana prekaritatearekin lotuta badago ere, badira euren burua dirutan ondo baloratzen duten profesionalak ere. Esaterako, guru.com webguneak funtzio zehatza du: profesional inde-

pendenteak eta une jakin batean euren beharra duten enpresariak harremanetan jartzea, eta bertan, langile bakoitzak bere burua eskaintzen du prezio jakin batean.

Katalunian telelangileen elkarre bat dago, eta haren webgunean informazio baliagarriak eskaintzen dituzte telelangileentzat. Lan mota hau arautzen duen legedia canaltrabajo.com en aurki dezakegu, hainbat gogoeta, adibide eta aholkurekin batera.

Guru

www.guru.com

Kataluniako telelangileak

www.telecat.org

www.abccwork.net

Telelanaren ezaugarriak


www.ctv.es/USERS/gesworld/Art005.htm

Grupo de trabajo independiente

<http://gtii.org/>

Legedia eta aholkuak

www.canaltrabajo.com/teletrabajo



publizistek, merkataritza elektronikoaren bidezko saltzaileak, burtsako gorabeheren jarraipena egiten duten langileak, inbertsoreak... ateratzen diote etekin handiena telelanari.

Alderdi txarrak

Baina lan mota honek bere alderdi txarrak ere baditu. Garrantzitsuenak lanaren eta aisiaren eremuak ez bereiztea da. Pijama jantzita ohearen ondoan eta edozein ordutan lanean jardutean, espazio fisikoak eta denborak ez dituzte bereizten telelangileak, eta horrek itolarria eragin dezake. Buruarentzat kaltegarria da espazioak ez bereiztea. Estresa sortzen du eta lanetik ezin libratzearen sententzia. Gainera, egun dau den baliabide batzuek —ordenagailu eramangarriak eta saketako telefonoak— lana edonora eramatea ahalbidetzen dute, lanaren kondena biblikoa areagotuz.

Susana Finkelievich irakasle eta telelangile argentinarrak lan mota berri horren ondorioak ikertu ditu, eta dena etxean egite horrek, besteak beste, *putzuaren sindromea* delakoa eragin dezakeela ikusten du. Eta ez bakarrik telelana; harreman guztiak etxeko distantziatik egiteko arriskua dakar, aisialdi bideojoko eta telebistara mugatzea, erosketak Interneten bidez egiteko. Etiket irten gabe posible da ia bizitza osoa egitea, 2000. urte osoan Dotcomguy izeneko gazte batek frogatu duenez.

Putzuaren sindromea Aljerian sumatu zuten ikerle batzuek, herri batean iturriko ura etxeetara eraman zutenean. Egunero putzura joateko ohituraren galdu zuten emakumeen artean neurosiak eta depresioak sortu ziren. Harremanetan egoeta, kontaktu fisiko oso garrantzitsua da gizakiontzat, izaki sozialak baikara, eta gero eta etxezuloago izateak hori gala-

WEBGUNEAK

Nobela interaktiboa

Ahalegin itzela egiten ari da Susa sarean makina bat eduki jartzeko eta ekimen irudimentsuak aurrera ateratzeko. Besteak beste, zapa-tisten martxak iraun bitartean Iñigo Aranbarriren *Zapataren oihana* liburua osorik sarean jartzea otu zitzaion. Beste liburu askoren pasarteak entzuteko aukera dago webgunean bertan, RealAudio formatuan eta egileen ahotsetan kasu gehienetan. Arestiren letrak musikatuta entzun daitezke mp3 formatuan eta inprimatu gabeko hainbat testu osorik har daitezke webgunetik. Baina azken proiektua izango da, agian, interesgarriena: Koldo Izagirrek bere hurrengo nobela idatzi ahala webgunean publikatuko du eta zuzenketak eta berridazketak agertuko dira. Dudarik gabe, irakurleen *feedback* ak bere eragina izango du idazlearengan eta idazketan.

Susa

www.susa-literatura.com

idezketak@armiarma.com



Iñigabeitia proiektua

Susa argitaletxeak beste webgune berri bat aurkeztuko du, larunbat honetan bertan, Zarautzen. Bertan, euskal literatura aldzakariak bilduko dituzte, sekulako gordailuan, armiarma.com domeinupean. Guztira, 130 aldzakari-zenbaki oso-osorik eta doan, 11 milioi karaktere orotara. Hor izango dira Ige-la, Ustela, Pott, Oh! Euzkadi, Susa, Xaguxarra, Txistu y Tamboliñ, Kandela, Korrok, Ttu-ttua, Porrot, Literatur Gazeta, Mazantini, Garziarena eta Zantzoa.

Iñigabeitia

www.armiarma.com